



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## Emilio Sagik, Arriaga Antzokia hankaz gora jarriko duen komedia musikal lehergarri bilakatu du *Luna de miel en el Cairo* opereta

- Emilio Sagik berak egin du Francisco Alonsoren musika duen José Muñoz Romáñen bi ekitaldiko opereta ezagunaren bertsio librea.
- Miquel Ortega arduratzen da apirilaren 3, 4, 6 eta 7an Arriagan ikusi ahal izango dugun ikuskizunaren musika zuzendaritzaz.
- Eszenatokira igoko direnen artean ahots liriko handiak daude: **Beatriz Díaz, David Menéndez, Mariola Cantarero, Itxaro Mentxaka, José Manuel Díaz, Enrique Viana eta Alberto Núñez.**
- **Mitxel Santamarina eta Iñaki Maruri** antzezleak, **Rossini Abesbatza, Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS)** eta hamaika dantzari ere arituko dira.
- **Nuria Castejónen** koreografiak, **Jesús Ruizen** jantziek eta **Daniel Biancoren** eszenografiak nabarmendu egiten dute ikuskizunaren handitasuna.

**Bilbon, 2019ko martxoaren 28an.- Emilio Sagi,** eszena zuzendari handia, eta 2008ko urtarriletik 2015eko abendura Arriaga Antzokiaren zuzendari artistikoa izan zena, ikuskizun handiarekin itzuliko da bere etxea izan zenera. *Luna de miel en el Cairo*, **Francisco Alonsoren** musika duen bi ekitaldiko **Francisco Alonsoren** opereta ezagunari **Emilio Sagik** beste buelta bat eman dio, datorren astean, apirilaren 3, 4, 6 eta 7an, Bilboko ikus-entzuleak erakarriko dituen oso komedia musikal dibertigarria bilakatzeko. Emilio Sagi, lanaren bertsio librea egiteaz gain, eszena zuzendaritzaz ere arduratzen da. Teatro de la Zarzuelaren ekoizpen lan honetan, musikaren batuta **Miquel Ortega** Maisuaren eskuetan egongo da.

*Luna de miel en El Cairo* Espainiako gerra osteko errebista musikalaren proposamen berria izan zen, abagune politikoak zirela eta, aipamen erotikoz eta esanahi bikoitzez betetako ikuskizunez osatutako ordura arteko tradizioa guztiz baztertu ondoren. Emilio Sagik komedia musikalaren eremura eramanez gura izan du opereta, barre asko eragiten dituen lana sortuz, opereta, errebista, zartzueta... ez den muntaketa, horien guztien pixka bat baizik. Horregatik, interpreteak abeslari liriko bikainak dira. Protagonistak **Beatriz Díaz** eta **David Menéndez** dira, eta eurekin batera **Mariola Cantarero, Itxaro Mentxaka, José Manuel Díaz, Enrique Viana** eta **Alberto Núñez**. Ahotsen kalitateaz gain, guztiek erakusten duten ukitu komikoa azpimarratu behar da. Horri helduta, aipagarriak dira **Mitxel Santamarina** eta **Iñaki Maruri** antzezleek egiten duten ekarpen dibertigarria, **Carlos Imazek** zuzendutako **Rossini abesbatzaren** ahots errefortzua eta txispa, eta **Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS)** beti eskaintzen duen partituraren gauzatze bikaina.

Inolako zalantzarik gabe, musika da lan horren erakarpen nagusietakoa, bikaina izateaz gain, oso erraz barneratzen baita. Izan ere, Francisco Alonso egilea melodia egile bikaina izan zen, zartzuela eta errebista garrantzitsuen autorea. Oraindik oroimenean daude *La bejarana*, *La parranda*, *Las leandras* eta beste asko.

### **Beste alderdi azpimarragarri batzuk**

*Luna de miel en el Cairo* lanak, **Nuria Castejón**en koreografiarekin agertokian egongo diren hamaika dantzarik interpretatutako dantza une arinak eta dibertigarriak ere eskaintzen ditu.

Ez dugu **Daniel Biancoren** ekarpen garrantzitsua ahaztu behar. Bere eszenografia ederrak Kairo hirira eramango gaitu zuzenean, ikuskizuna dotoreziaz jantziz. Gaur egun Teatro de la Zarzuelako Zuzendari Artistikoa den Bianco ere Arriaga Antzokira itzuliko da. Zuzendari Artistikoaren Alboko gisa egin zuen lan bertan, "Sagi garaian", hain zuzen ere.

Amaitzeko, aipagarriak dira, baita ere, **Jesús Ruizen** jantzi koloretsuak eta **Eduardo Bravoren** argiztapen lana.

### **Sinopsia**

Antzoki batean, agian 1943ko otsailaren 6an *Luna de miel en el Cairo* antzezlanaren estreinaldia jaso zuen Madrilgo Martin Antzokian bertan, edo beste edozeinetan, opereta hori eszenaratzeko entzunaldiak ari dira egiten. Neska batek lan horri buruzko abesti bat abesten dio Maisuari, eta Maisua, zailtasunez, melodia aurkitzen ahalegintzen da. Azkenean lortuko du.

Entzunaldian hainbat pertsonak hartzen dute parte. Horietako batzuk aukeratu egingo dituzte, eta beste batzuk, berriz, ez. Estreinaldi handi baterako prestatzen ari den edozein antzokitan ohikoak diren egoera tipikoak ikusiko ditugu, gaizki irten direnez behin eta berriro errepikatu beharko diren eszenen entseguak, edo ikus-entzuleek ikusten ez dituzten arren oso beharrezkoak diren pertsonaiek eragindako egoerak, pixka bat edatea atsegin duen erregidoreak, adibidez, eta baita sastreak ere, oraingo honetan vedette ohia.

Baina interpretatzaileek, enpresarioaren aginduak direla eta, *Luna de miel en el Cairo* lanaren benetako funtzioa, bere printzesarekin egin beharko dute, neurria ez emateagatik konpainiatik kaleratuko ote duten beldur den printzesa faltsuarekin, hain zuzen ere; eta hor daude, baita ere, Linburgoko, operetako herrialde hartako, agintari diplomatikoak. Presta zaitezte, nahasketak garaikoak izango dira eta!

### **ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK**

- 12 eta 42 euro artean.
- Salgai [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean, 946 850 850 telefonoaren bitartez edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

# ***Luna de miel en el Cairo***

**Francisco Alonso maisuarena, José Muñoz Románen libretoarekin**  
*Bi ekitaldiko opereta komikoa, Madrilgo Martín Antzokian estreinatua 1943ko otsailaren 6an*

*Emilio Sagi-ren bertsio librea*

Musika zuzendaritza: **Miquel Ortega**  
Eszena zuzendaritza: **Emilio Sagi**  
Eszenografia: **Daniel Bianco**  
Jantziak: **Jesús Ruiz**  
Koreografia: **Nuria Castejón**  
Eszena zuzendaritza laguntzailea: **Javier Ulacia**  
Argiztapena: **Eduardo Bravo**

## **Interpreteak:**

Martha: **Beatriz Díaz**  
Eduardo: **David Menéndez**  
Myrna: **Mariola Cantarero**  
Marisa sastrea: **Itxaro Mentxaka**  
Erregidorea/idazkaria: **José Manuel Díaz**  
Rufi: **Enrique Viana**  
Don Celestino: **Mitzel Santamarina**  
Piano jotzailea: **Iñaki Maruri**  
Tenore gaztea: **Alberto Núñez**

Abesbatza: **Coro Rossini**  
Abesbatzaren zuzendaria: **Carlos Imaz**

Orkestra: **Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS)**

Dantzariak: **Cristina Arias, Helena Martín, María Ángeles Ferrer, María López, Rosa Zaragoza, Olivia Juberías, Francisco Guerrero, Luis Romero, Alberto Ferrero, Christian Sandoval eta Daniel Morillo.**

**Teatro de la Zarzuelaren ekoizpena**



Informazio gehiago:  
Komunikazioa – ARRIAGA ANTZOKIA  
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307  
[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)  
[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)